



1-BALIO PROPOSAMENA

Askotan jabeek ez dakite beren txakurra pozik, urduri edo beldurtuta dagoen. Maskotek ezin dute hitzez adierazi nola sentitzen diren, eta horrek egoera askotan zalantza sortzen du. MOOD PET horri erantzuteko sortu da: lepoko adimendun bat, maskotaren emozioak kolore bidez uneoro erakusten dituen.

1.1 Zer da MOOD PET?

Gure produktua txakur-jabeentzat da, maskotaren ongizatea hobeto kontrolatu eta ulertu nahi dutenentzat. Tamainaren arabera, katuek ere erabil dezakete. Etxean, paseoan edo entrenamendu-egoeretan eroso erabiltzeko diseinatuta dago.

MOOD PET lepoko adimendunak LED argidun banda potoloa dauka, emozioak oso modu ikusgarrian adierazteko. Barnean pultsazioak eta mugimendua neurtzen dituzten sentsoreak ditu, eta informazio hori erabiliz animaliaaren egoera emozionala kalkulatu du. Era berean, metalezko eraztuna dauka uhala jartzeko, eta klip bidezko hebilla segurua, eroso jartzeko eta kentzeko.

1.2 Zergatik MOOD PET eta ez PetPuls?

MOOD PET lepokoaren abantaila nagusiak hauek dira:

- Emozioak koloreen bidez uneoro ikus daitezke, oso modu intuitiboan.
- Jabeak bere maskotaren ongizatea hobeto ulertzen du eta egoera deserosoei azkar erantzun diezaike.
- Pultsazioa eta jarduera neurtzen ditu, eta informazio osagarria ematen du animaliaaren errutinari buruz.
- LED argiek ikusgarritasun handia bermatzen dute egunez zein gauez.
- Aplikazioa bigarren mailakoa da; datu zehatzagoak ikusteko balio du, baina informazio nagusia lepokoak berak ematen du.

Gure lehiakide zuzena PetPuls da. PetPuls txakurraren oihuak aztertzen ditu eta emozioak aplikazio batean erakusten dira. MOOD PET desberdina da, emozioak gorputzaren erreakzioetan oinarritzen direlako, eta informazioa zuzenean lepokoan ikusten delako, kolore bidez eta denbora errealean. Horrez gain, ez dago mugikorrik ireki beharrik, eta horrek eguneroko erabilera asko errazten du.



1.3 Erabilera egoera

Egoera praktikoetan ere oso erabilgarria da. Paseoan zoazenean eta lepokoa gorritz pizten bada, badakizu zure txakurra urduri edo deseroso dagoela. Etxean berdez edo urdinez badago, animaliak lasai edo pozik dagoela adierazten du. Horri esker, jabeak berehala jakin dezake zer gertatzen ari den eta nola jokatu.

Azken finean, MOOD PET maskotaren emozioak bezeroari modu argi, bisual eta errazean helarazten dizkion producto bakarra da, app-a zerbait osagarria bihurtuz eta informazio nagusia lepokoaren bidez uneoro erakutsiz.